• Hiri-lurzoru finkatua, etendurak Plan Orokor berriak proposatutako eraikuntza-eta erabilera-erregimena eta Zumaia Plangintzako Arau Subsidiarioen dokumentuak ezarritako indarreko araubidea bat ez datozenean bakarrik izango du eragina. Nolanahi ere, etendurak ez du eraginik izango proiektuak bi araubideak betetzen dituzenean.

• Hiri-lurzoru finkatugabeen:

• Zonas genéricas en suelo urbano y urbanizable o de sistema general, donde la calificación global y la nueva ordenación urbanística no es coincidente entre el documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento de Zumaia y el documento del nuevo Plan General de Ordenación Urbana en trámite de aprobación inicial. Sin perjuicio de lo anterior en aplicación de la regulación general, la suspensión afecta expresamente a los siguientes ámbitos:

- Áreas en suelo urbano con ordenación pormenorizada remitida a planeamiento de desarrollo:
- PE-R01 Errementerikoa.
- Sectores en suelo urbanizable sectorizado ordenados pormenorizadamente por el nuevo Plan General:
- AI-SUS-R09 Puntanoeta.
- AI-SUS-R10 Narrondo.
- Ámbitos en suelo urbanizable no sectorizado remitidos a plan de sectorización:
- PS-MO1 Txikierdi
- PS-AE01 Bialea I
- PS-AE02 Bialea II

• La suspensión no afecta a los ámbitos con planeamiento en desarrollo así considerados por el nuevo Plan General tanto en suelo urbano como urbanizable

Afecciones derivadas de la nueva ordenación de carácter pormenorizado:

Se estará a lo siguiente:

• En suelo urbano consolidado, la suspensión solo afecta a los supuestos en que no coincida el régimen de edificación y uso propuesto por el nuevo Plan General y el vigente establecido por el documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento de Zumaia. En todo caso, no afectará la suspensión cuando el proyecto cumpla ambos regímenes.

• En suelo urbano no consolidado:



- Etendurak zuzkidura-jarduketa gisa mugatutako lurzatiei eragiten die, salbu eta proiektuak bi araubideak betetzen baditu (Zumaiako Plan Orokor berria eta indarrean dauden Plangintzako Arau Subsidiarioak). Honako hauek dira:
 - AD-R01. Arritokieta kalea 014.
 - AD-R02. Eusebio Gurritxaga, 10.
 - AD-R03. Olazabal Idazkariaren kalea, 9.
 - AD-R04. Harategi kalea 15.
 - AD-R05. Harategi kalea 19.
 - AD-R06. San Telmo kalea 905.
 - AD-R07. San Telmo kalea 14.
 - AD-R08. San Telmo kalea 21.
 - AD-R09. San Telmo kalea 25.
 - AD-R10. Jadarre auzunea 03.
 - AD-R11. Oikia auzoa 36.
 - AD-R12. Oikia auzoa 34 BIS.
 - AD-R13 Oikia auzoa 34.
 - AD-R14 Oikia auzoa 917.
- La suspensión afecta a las parcelas delimitadas como actuaciones de dotación salvo que el proyecto cumpla ambos regímenes (nuevo Plan General y Normas Subsidiarias de Planeamiento de Zumaia vigentes). Son las siguientes:
 - AD-R01. Arritokieta kalea 014.
 - AD-R02. Eusebio Gurritxaga, 10.
 - AD-R03. Olazabal Idazkariaren kalea, 9.
 - AD-R04. Harategi kalea 15.
 - AD-R05. Harategi kalea 19.
 - AD-R06. San Telmo kalea 905.
 - AD-R07. San Telmo kalea 14.
 - AD-R08. San Telmo kalea 21.
 - AD-R09. San Telmo kalea 25.
 - AD-R10. Jadarre auzunea 03.
 - AD-R11. Oikia auzoa 36.
 - AD-R12. Oikia auzoa 34 BIS.
 - AD-R13 Oikia auzoa 34.
 - AD-R14 Oikia auzoa 917.

Etendurak hasierako onarpenaren izapidean dagoen Plan Orokor berria mugatutako jarduketa integratuetan sartutako lurzoruei eragiten die.

-La suspensión afecta a los suelos incluidos en las actuaciones integradas delimitadas en el nuevo Plan general en trámite de aprobación inicial.

- AI-SUNC-R01 San Jose.
- AI- SUNC-R02 Arritokieta.
- AI- SUNC-R03 Erribera.
- AI- SUNC-R04 Estazioa A.
- AI- SUNC-R05 Estazioa B.
- AI- SUNC-R06 Urola Enparantza-Guascor.
- AI- SUNC-R07 Aita Mari.
- AI- SUNC-R08 Oikia.
- AI-SUNC-R01 San Jose.
- AI- SUNC-R02 Arritokieta.
- AI- SUNC-R03 Erribera.
- AI- SUNC-R04 Estazioa A.
- AI- SUNC-R05 Estazioa B.
- AI- SUNC-R06 Urola Enparantza-Guascor.
- AI- SUNC-R07 Aita Mari.
- AI- SUNC-R08 Oikia.

Argi Yeregui Egaña

Zumaia, 2024ko abenduaren 11a
Lurralde batzordearen arduraduna

Une honetan gehitu da bilerara Itziar Etxabe Etxabe.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Plano orokorreko nondik norakoa Argik, Hirigintzako zinegotziak azalduko digu.



ARGI YEREGUI EGAÑA: Bueno aurkezpen txiki bat prestatu deu ze gai nahiko potoloa da eta gainera dokumentazio grafikoekin iruitze zaigu hobeto ulertzeala. Ordun bueno, gaur dakargun gaia hasierako onarpena da. Esagutzen duzue pixkat behin baino gehiagotan azaldu deu eta, jakingo duzue, baina bueno udalerrri osoa arautzen duen plan bat da, bai eraikinak, bai lurzorua sailkatzeko erabiltzen dana. Eta gutxi gorabehera 8- 12 urteko indarraldia eukitzen dau baldintzen arabera.

Hasierako onarpena izango litzake urdinez daonan aurrekoa gaur tokatzen zaiguna eta jarraian jendaurreko erakustaldia eta hasierako onespeneren hurrengo pausoak. Bueno, hau pixkat aterrizauta ze plan orokorrak emateu askotan udaletxeko edo Administrazioako hizkuntzan idatzita eta hitziteala baina gero aterrizauta herritarren eta herrian ze eragin daukan, lau zatitan banatu ditugu pixkat sailkapen bat egiteagatik eta hobeto azaltzeko.

Alde batetik, etxebizitza, non bizi gean gaur egun dan gai potoloakin, ekonomia, jarduera ekonomikoak, turismoa, merkataritza, industria. Eta gero nun harremantzen gean gure komunitadea nun osatzen den, nun jarduten dan, eh bere ekintzetan. Eta hor espazio publiko eta ekipamendu publikoak eta baita hor sartu ditugu ba bide publikoak, mugikortasuna ulertuz eta komunikazioak ulertuz. Eta gero hau guztia zeharkatuz eta ez inportantzi gutxiokin daude beste zehar lerro batzuk. Jasangarritasuna eta ingurumenaren kontserbazioa, inklusibitatea eta berdintasuna, genero ikuspegia deitzen dioguna baita, ondarearen babesa eta euskera. Ta ordun bueno hauek pixka bat adibide batzuekin edo garrantzitsuenak iruitzen zaizkigun ardatzekin azalduko dizkizuet bestela onspen honek ez daukala oinaririk.

Hasteko etxebizitzan. Gaia. Guretzat gaur egun erronka handienetakoa da handiena ez baldin bada bizilekuan beharra asetzea. Eta hortarako bueno plan jeneralak lehenengo goikalean jarri deu Plan Jeneralak antolatzen dituen etxebizitza kopurua dia 870 baino hor barne daude, ba aurreko planetikan zetozenak eta berrikusi behar izan dianak oaindikan bukatu gabe daudelako ba Torreagakoak esaterako. Eta ordun azpian jarri degu beste zenbaki bat diala 687 hor ikusten deu baita ere desberdintasun bat, ehuneko handi bat 59a babestuak diala tasatuak eta eta VPO.

Ta ja pixkat ekintza konkretuta jun da guretzako ba nahiko potentea den ekintza bat, Aita Mari Puntanoetako ekintzak, jarduketak. Bi hauen funtzioa, alde batetik, herri tramai bukaera ematea ze benetan bukaera bat da. Gero babestuta daude ordun ezta aurreikusten hortikan aurrea eraikitzen jarraitzea. Ordun erremate bat bezela proposatzen degu formalki, etxebizitza ahal dan babestu gehien sartzea baita ere. Eta bestalde, Aita Mariko etorbidea irekita Komunikazio hori zortzia eta baita ekipamendua, kanpofubola futbol zelaia eramanez Puntanoetako bukaerara iruditzen zaigu egokiyo erabilera nahasketak eotia ze askotan, gehienetan ekipamenduak ordutegi antzeko eukitzen due beraien artean eta itxita eoteie beste denbora guztian eta ordun hor gertatzen dira ba puntu beltzak bezala sortzen dia genero ikuspegitik eta iruditzen zaigu askoz egokiyo geatzean dala honela.



Gero beste ekintza batzuk, pixkat herriko beste sarrerak, Aita Marikoa sarreratako bat eta beste sarrerak Narrondotikan ere herrira datozenai ongietorria egiten zaie eta auzoa pixkat desegituratuta dao, ordun ekintza honekin egitura ematen zaio. Etxebizitzak proposatzen dira eta etxebizitza horiei horiekin lotuta espazio publiko berri bat auzo guztiai beste izaera bat emango diona, baita ere auzoko unitatea dagokionez eta Guascor estazioko jarduketa biak lotuta daude baino hori ba bestiak beste bi Sarrera, bai trenetik zatozenez eta bestalde ba Zarautz aldetik, Getaria Zarautz aldetik zatozenian eta bueno hor ere bizitegi eremu potentiak proposatzen dira. Eta baita jarduketa txikiak ere estazioa bezalako, pixkat auzo degradatuta izanik. Horrei bai espazio publiko eta kanal berriak irekita eta eraikigarritasun balantza batzuk eginez beste borobiltasun bat eman zaio.

Oikian ere proposatu dira etxebizitza berriak. Berdin, espazio publikoekin lotuta eta jarraitasun bat emanez Oikiko etxebizitza multzoai eta alde Zaharrean ere alde batetik San Jose Arritokietako ekintzaileekin eraikigarritasuna handituta en zuzkidura publikoekin osatuta eta Erribera kaleko ekintzarekin ere. Horrek gero espazio publiko batekin ere Goiko Erribera kalea Goiko Plazarekin lotzen duelako. Ez bakarrikan etxebizitza sustatu, baizik eta josten du baita ere alde Zaharreko espazio publiko, jarraipen hori.

Bueno etxebizitzarekin bukatuta jarduera ekonomikoekin jarraitzen de. Hori beste erronka bat da zeren nahi de Zumaiian bizi, baina Zumaiian lan egin ere, baita mugikortasun-eredu jasangarriak sustatzeko.

Industria eta bestelako jardueretan Guascor-eko eremua eta Xey-eko eremua lehendik aurreikusita zeudenak baino bueno hori mantentzen da. Lurzoru berriak ere aurreikusten dira reserba modura. Hori uste dut Paulak azkena esplikatuz zula baino ba bueno ez da aurreikusten hori guztia okupatzea baino baezpare beteko balira ere, beti reserba modura lurzoruak jartzen dira. Eta gero bestelako jarduera motak Guascor Urolako ekintzan proposatzen dian pastillak eta Txikiardiko eremuan jartzen diren jarduera mistoekin ba pixkat horri ere bai malgutasuna ematen saiatu gara.

Merkataritza eta turismoan inguruan ere baldintza desberdinak aurreikusten dira eta jarduketa berritan bizitegi, erabilerarekin, bateragarriak dian jarduera ekonomikoak garatzea aurreikusten da. Lehen sektorean ere ba bueno hori arautzen da ze erabilera eman daitezkeen bai balio estrategikoa altuko eremutan eta bai trantsizioeskotan. Eta gero eremuak babesteko mugak jartzen dira autoktonoak ez dian landaketak saihesteko, eucaliptos-ko basoak eta abar.

Azkenengo ardatz nagusia, ekipamendu eta espazio publikoena. Hemen ere lanketa handia egin da. Espazio berriak, espazio publiko berriak sortu, elkarbizitzarako inportanteak iruditzen zaizkigulako ta baita ere herriari azkenian arnasa ematen diolako, ezta. Hemen irudietan ikusten de berde argiz ja gaur egun dauzkagun espazio libreak eta berde ilunaz proposatzen diren espazio publiko berriak. Eta bueno lehen esan deten bezela, Alde Zarreko jarduketekin eta abar, hor ikusten da hutsune bat zegoela eta hori lotzen saiatu gea ba



horrek beste zentzu bat edukitzeko eta Alde Zaharrak ere aurreikusten dugun beste aktibazioa eukiko duenez elkarbizitza hori bertan emateko.

Horrek ere mugikortasunari laguntzen dio hemen hobeto ikustea. Espazio publikoak ez baldin bada mugikortasuna kale hutsetatik ez dala berdina berdina eta topatzeko ere beti espazioak behar ditugulako. Beste aktuazio batzuk adibidea jartzekotan okupatutako espazio libratzea izan da bat Arren- goletako eskola txiki hori ba bueno denbora baterako zana aurreikusten da plaza izatea bueltatzea, eta Goiko Plazako merkatua ere oain Eroski dao baina hori ekipamendu bezela sailkatzen da. Eta ba hori espazio publiko estali bat edo bueno izatia dakana izateko. Espazio libre berriak ere proposatzen dira. Olazabal Jauregiko lorategian hor ilkusten duzue hori espazio publiko bihurtzea, Erriberako atzekaldea, konbentuko lorategia, hor Alde Zaharrea aipatu ditudan espazio guzti hauek garrantzia dutela Alde Zaharrari ere topagune izaera izaten jarraitzeko.

Ta esan deten bezela, espazio publikoetan kaliak eta bideak ere presente, mugikortasun eredu jasangarriakin, ba lotura horiek osatzea, bukatzea. Hori ere planteatu behar lurralde mailan, Urolakoa eta kostaldeko bidegorriak herri-mailan Aita Marikoa eta Puntanoetako bidegorrien jarraipena ematea. Estazioan Joxe Mari Kortan eta Oikian ere bidegorria planteatzea, esan deun bezela, herrian lana ein ba bueno joateko ere eredu jasangarriak egokiyo dialako. Eta oinezkoen ibilbidea ere hobetzeko jarduketak proposatu dia. Eta bueno, berdina lehen esan dudana, herriko bizigune eredutan jarri ditudan adibideak pixkat herriko sarrerak etxebizitzarekin rematau dia baino garrantzia eduki du baita ere espazio publiko aldetik ere remate hori ba duina izatea eta sarrera horietan ere aurreikusten dian aparkaleku berri horiek ba oinezko lotura onak edukitzea.

Ekipamendu berrietan, futbol zelaia nahi deu destakau. Lehen aipatu det, eta explikau det pixka guretzat lotura hori garrantzitsua dela baño Puntanoeta gaur egun dan barrio dormitorio edo pixkat bizigune eremu bakarrik izanda, ba askotan aktibidade gutxikin bezela gelditzen da bizitza gutxi daka kaliak horrek genero ikuspegitik ba arriskuak suposatzen ditu. Eta ordun ekipamendu bat ardatz horren bukaeran jartzeak guzti honei beste buelta bat ematen dio.

Eta hurrengo diapositiban jarri ditugu baita ere ekipamenduak argiz, lehen zeudenak eta ilunez berriak hor iruitze zaigulako ba pixkanaka lortzen ari garela beste banaketa ekitatibo bat herrian zehar. Beste oreka bat emango liokeena baita ere esan deten ordutegi eta erabilera desberdinak orekatuta.

Bukatzeke eta ez inportantzia gutxiokin zeharlerroak leheno gainetikan aipatu ditut. Baino hori ba guretzako oso garrantzitsuak dira eta ez dira guretzako bakarrik, araututa dagoelako. Baina hori esan behar det, ez dala bakarrian gero eiten dan balorazio bat, adibidez daude ELE eta generoa ikuspegiko txostenak baino erabaki guztietan presente eon dian ardatzak diala. Bai jasangarritasuna, bai inklusibotasuna, berdintasuna eta genero ikuspegia eta ondarea ere bai. Hemen aipatzeko ez bakarrik eraikinak babestu diala baita ere zuhaitz multzo batzuk eta naturguneak. Horrek ere bere garrantzia duelako



eta euskaran ere txostena egiteaz gain, ba hasieratikan erabakitan eta gero ordenantzetan ere kontun euki diala erabaki guztietan. Ta bueno bukatzeko, gaur hasierako onespena emango genioke baino urtarilak zortzian ya prentsaurrekoa eta erakusketan irekiera izango da Oxford-en eta hor hasiko dia partaidetza prozesuak,hitzaldiak, bisita gidatuak eta partehartze fokalak, eta jungo gea informazio gehio ematen.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko Argi. HAPOari buruz zerbait komentatzeko. Bai, zure hitza, Xabier.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ: Arratsalde on.

Zumaiako HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLANGINTZA OROKORRAREN, hau da, HAPO-aren hasierako onespeneko edukiei ezezko botoa emango diogu. Gaur bozkutzen dena edukiak dira eta gu eredu honekin ez gaude ados, zumaiako herriaren etorkizuneko beharren aurrean ez delako epe ertain-luzeko soluzio bat eskeintzen herritarrei.

HAPO berri bat lantzeko 10 gaiak kontutan hartzen baditugu:

1. **Mugikortasuna:** gai honi erreparatuz, dokumentu honetan herriko zenbait gune dentsifikatzen direla ikus daiteke eta gune hauetan ez da mugikortasuna bermatzeko aktuziorik zehazten. Bidegorriak bai baino aparkalekuak orain aipatuko dudan bezala...
2. **Aparkalekuak:** Aurrerakinean planteatzen ziren hainbat aparkaleku ez dira hasierako onespenean jaso; eta honek herriguneko trafiko eta aparkalekuaren arazoari ez dio konponbiderik ematen.
3. **Ekipamenduak:** Aita Mari kalea luzatzeko planteatzen den aktuzioarekin, etorkizuneko zumaiarrek kiroldegian handitze bat egin nahi badute, kondenatuta geratzen dira espazio ezagatik.
4. **Jarduera ekonomikoa:** Tokiko merkataritza indartze aldera ez dago inongo zehaztasunik HAPOan.
5. **Etxebizitza:** Gai honi dagokionez, ados gaude Zumaiar guztien beharretara egokitzen diren mota ezberdinetako etxebizitza ezberdinak egitearekin. Baina ez dugu ulertzen 8 urteren epeaz haratago etxebizitza eremu berriak ez aurre ikustea.
6. **Espazio publikoa:** Adibidez, herriaren ardatz garrantzitsua izan daitekeen, Zuloaga Plaza-Beheko Plaza-Erkibe espazio bateratu bat egitea ontzat eman zen aurrerakinean; eta hasierako onspen honetatik desagertu egin da.
7. **Ondarea:** Zumaiako ondarearen inguruko plan bereziren bat faltan botatzen dugu.



8. **Ingurumena, klima aldaketa, turismoa eta inklusibitatean:** hasierako onespén honetan ez da ekintza edo aktuazio zehatzik jasotzen eta gai hauetan motz geratzen dela uste dugu.

Esandako guztiagatik, ANBIZIO FALTA eta plangintza KONTSERBADOREA dela esan dezakegu 2024ko azaroaren 19ko aurkezpenean aipatu zen bezala.

Bestalde, HAPOa lantzeko bilerarik agintaldi honetan ez da egin.

Dokumentuaren zirriborroa orain dela hilabete aurkeztu zitzaigun hilabeteko epean aztertzeko; eta azken bertsioa astelehen honetan, korrika eta presaka Pleno honetan Hasierako Onspena bozkatzeko.

Iruditzen zaigu ez dela serioa horrelako garrantzia duen gai batekin horrela jokatea. Ez dugu bat egiten ez formekin, ez epeekin eta ez lantzeko moduarekin. Aurkezpena egin zitzaigunean, dokumentazioa aztertu eta ekarpenak egin ahal izateko, Hasierako Onspena atzeratzea eskatu genuen; eta ezekoa eman zitzaigun. Onspenaren ondoren izango zela alegazio edo ekarpenak egiteko hilabete edo hilabete pare bateko epea eta.

Presaren beste adibide bat: asteazkenean (abendua 11) HAPOaren laburpen exekutiboa bidali zenuten baina datu batzuk ez zetozen bat justifikazio memoriarekin. Akats baten berri eman genuen eta astelehenean (abendua 16), Erremitteriko etxe kopuruan 144 tik 36 ra pasatzen zela ziurtatu zitzaigun 108 etxebizitza gutxiago.

Azkenik, hurrengo 30 egunetan elkarlana handitzea espero dugu, jada urtarrilean 28 an alderdi ezberdinen arteko bilera proposatu da.

Elkarlanerako prozesuan adibide gisa har dezakegu "Biharko Zumaiara boga PLAN ESTRATEGIKOA 2015-2025" erabilitako dinamika. Zumaian egindako prozesu partehartzaile haundienetako bat izan zen eta aho batez onartu zena udalbatza hau osatzen duten alderdi guztien aldetik.

Amaitzeko, elkarlanaren ondorioz espero dugu alegazioetan gure ekarpenak kontutan izatea eta emaitza, guztion helburua, HAPO-a aho batez onartzea izatea.

Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko Xabier. Duñike zerbait komentatzeko?



DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE: Hasiara behintzat ematen zaiola behintzat dokumentu batekin eta nik uste dut base bat badaola horren aurrean ba aurrekoak esan duen bezala, elkarrekin lan egitea eta benetan ba adosten deu denon artean nahi degun plana, momento hontan nik pentsatzen det EH Bilduk aurkeztu duen proposamen bat dela eta beste guztien artean ikusiko deu nola aldatzen deun, egia da askotan partaidetza eskatzen dugula eta oso zaila dala partaidetza lortzea benetakoa izatea, baina nik uste dut hortan ere danon laguntza behar dugula, benetakoa izatea eta bide on bat ematian dokumento on bat ateratzea danoi komeni zaigula, ikusten det dokumento hori ona izatea HAPO on bat edukitzea aurrerako ekintzak benetakoak izateko. Zetikian Gobernuan momentu batean hauek daude, aldatu dezake hau baino dokumentu hauek danoi lotuko digu aurrera begiratzen baldin badugu eta aurrerako urteentzako bere garrantzia du. Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Eskerrik asko. Nik soilik ñabardura bat. Bueno eztakit aipatu dezu plan estrategikoaren lanketa egin zala 15- 19ko hortan ni zinegotzi negon 15 arte. Bazeon partida bat hori martxan ipintzeko eta kontratatu eta dana eintzan baino egia esan horren partaidetza horren kudeaketa ba orduko Gobernuak egin zuela, baina grazia emateik, zeren orduko zinegotziak hala esan zigutelako plan estrategikoko lanketa guztiya ekarpen guztiyak eta azken finean atera zan guztiya EH Bilduko udal taldeak egindako ekarpenekin egin zala ez Gobernuaren parte oseake graziya egin dit hori hona ekartzea. Besterik gabe, azken finean aipatzen duzun bezala, kontserbadorea da, egia da, ez dugu hemen 1500 etxebizitza ekartzen. Ekartzen ditugu daudenak eta eta egia da baita ere Zumaiako Herriyak daka dakan tokiya, dakan espazioa. Gero hemendikan aurrea bizitegi eremu berriak eta lur gordeketak eiteko ya hasi behar geala beste gauza batzutaz hitzegiten, barientetikan haratago joaten eta hori 2004ko HAPOa onartu aurretikan orduko Gobernuak aurkeztu zun planaren baitan dao eta orduan ere esan zitzaion ezetz, eredu horri eta hori ez da gure eredu. Guk dauzkagun lurzoru horiek aprobetxatu nahi dugu. Azken finean hori da nik uste dut gaur eguneko eredu hori dala erabilita dauden lurak ahal zaion etekin gehiena edo etekina ez, baino erabilera gehiena ateratzea eta ez herriya lurak jaten joatea pixkanaka-pixkanaka eta espazioik ez egotea landalurra eta horrelako eremuentzako. Horregatik diot hala dala. Kontserbadorea da gaur aurkezten dugun HAPOa. Nik ustet aspektu guztietan kontserbadorea. Besterik gabe, bozkatu egingo dugu aldeko bozka?

Alkateak gaia aurkeztu ondoren bozka eskatu du,



Aldeko botoak: 10 boto (10 EH BILDU)

Kontrako botoak: 5 boto (EAJ-PNV)

Abstentzioak: 1 boto (Euskal Sozialistak)

Puntu honetan idazkariak eskatu dio alkateari ebazpeneko puntuak irakurtzea eta idazkariak gaiari buruzko xehetasun batzuk azaldu ditu, adibidez bi urtez suspendituta dauden eremuak, zehaztapena eremu guztietan jarraitu behar dela hitzez hitz, ze eremu dauden suspendituta bi urtez garapena egiteko, besteak beste.

ERABAKIA:

LEHENA.- Hasierako onespena ematea Hiri Berrikuntza eta Garapenerako Azterlanak (ERDU) idatzitako Plan Orokorren hasierako onспен-dokumentuari. Dokumentu horrek Zumaiako udalerriko hirigintza-antolamendua definitzen du eta lurzorua sailkatzen du.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea Plan Orokorren hasierako onспенaren dokumentua, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, 45 egun balioduneko epean, udaletxeko iragarki-taulan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalkunde handiena duten egunkarietan iragarkia jarrita.

Epe horretan espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, egokitzen jotzen diren alegazioak aurkez ditzan. Halaber, eta informazioa emate aldera soilik, udalaren egoitza elektronikoa egongo da eskuragarri: www.zumaia.eus

HIRUGARRENA. Sektore-eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezten eta txostena egin dezaten.

LAUGARRENA. Halaber, eraginpeko administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egitea, 45 egun balioduneko epean Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa aztertu ahal izan ditzaten, egokitzen jotzen dituzten oharak egin ditzaten. Izapide horiek amaitu ondoren, espedientearen kopia osoa bidaltzea ingurumen-organo eskudunari, nahitaezko ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

BOSGARRENA. Udal Plangintzako Aholku Batzordeari jakinaraztea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109. artikuluan araututako ondorioetarako.

SEIGARRENA. Mota guztietako onarpen, baimen eta lizentziak etetea aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan, Plana idatzi duen taldeak aurkeztutako planoen



eta dokumentazioaren arabera (espedienteen dago jasota). Etete horrek gehienez bi urteko iraupena izango du (LHL 85.2), abenduaren 21eko 18/2023 Legeak emandako idazketan.

Hirigintzako onarpenak, baimenak eta lizentziak etetearen irismena honako aplikazio-baldintza hauen mende dago:

- Eteteak hirigintzako onarpenetan, baimenetan eta lizentzietan baino ez du eraginik, indarrean dagoen legerian horri buruz ezarritako aurreikuspenen ondoriozko irismen juridikoarekin.
- Kontuan hartu behar da indarrean dagoen hirigintza-plangintzan eta hura aldatzeko edo garatzeko sustatutako espedienteetan jasotako aurreikuspenen garapena eta betearazpena eteteke behar den irismen materiala duela, baldin eta espediente horiek ez badatoz bat Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren proposamenekin, baldin eta plan berriaren ezarritako hirigintza-antolamenduaren etorkizuneko garapena eta exekuzioa urratzen edo itxuraldatzen badute.
- Kontuan hartu behar da etenduraren eraginpeko lurralde-eremua udalerriri osoak osatzen duela, etete-akordioan adierazitako iritzi eta ñabarduren testuinguruan

HIRIGINTZAKO ONARPENAK, BAIMENAK ETA LIZENTZIAK ETEN BEHAR DIREN EREMUAK

Oro har, onarpenak, baimenak eta lizentziak eteteak ez die eragingo udalerriko eremu eta lur-zatiei, honako bi baldintza hauek betetzen direnean:

- Plan Orokor berriak ez ditzala egiturazko hirigintza-antolamenduko zehaztapenak aldatu Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen indarreko dokumentuari dagokionez, hirigintza-onarpenak, -baimenak eta -lizentziak eteteke erabakia hartzen denean.
- Izapidetzeko aurkezten diren proiektuak Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen indarreko dokumentuan eta HAPO berriaren ezarritako zehaztapen eta baldintza xehatueta bi aldiz egokitzea.
Aurrekoa gorabehera, berriaz proposatzen da hirigintza-onarpenak, -baimenak eta -lizentziak etetea honako egoera eta eremu hauetan aplikatzea:

Lurzoruaren sailkapen berriaren ondoriozko eraginak:

Etendurak honako kasu hauei eragiten die:

- Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen indarreko dokumentuak hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruak, hasierako onarpenaren izapidean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren dokumentuak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen dituenak.



- Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen indarreko dokumentuak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruak, hasierako onarpenaren izapidean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren dokumentuak lurzoru hiritar edo urbanizagarri gisa sailkatzen dituenak.

Egiturazko antolamendu eta zonakatzeko berriaren ondoriozko eraginak:

Etendurak honako kasu hauei eragiten die:

- Plan Orokor berriak mugatutako landa-eremuak, non erabilerak eta jarduerak baimentzeko eta ezartzeko araubidea ez datorren bat Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen indarreko dokumentuarekin.

Araudi orokorra aplikatuz aurrekoari kalterik egin gabe, etendurak berariaz eragiten die antolamendu berezia duten eremu hauei:

- AA-R08 Basustabidea 13
- AOP-05 Santa Lucia.
- La suspensión afecta expresamente al suelo incluido en las siguientes actuaciones de ejecución de dotaciones públicas:

- AEDP-03 Bidegorri Guascor-Playa Santiago.
- AEDP-04 Bidegorri Zumaia-Polígono Korta.
- AEDP-05 Pasarela Polígono Korta.
- AEDP-06 Adecuación trazado de Bidegorri.
- AEDP-07 Bidegorri Zumaia-Zestoa.
- AEDP-08 Talaimendi bidea, 1.
- AEDP-09 Oikiako industrialdealdeko bidea.
- AEDP-10 Igerileku Narutala,
- AEDP-11 Udal Brigada

- Hiri-lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko edo sistema orokorreko zona orokorrak, non kalifikazio orokorra eta hirigintza-antolamendu berria ez datozen bat Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen dokumentuarekin eta hasierako onarpenaren izapidean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren dokumentuarekin. Araudi orokorra aplikatuz aurrekoari kalterik egin gabe, etendurak honako eremu hauei eragiten die berariaz:

- Garapen-plangintzara igorritako antolamendu xehatuko hiri-lurzoruko areak:
- PE-R01 Errementerikoa.
- Lurzoru urbanizagarri sektorizatuan dauden sektoreak, Plan Orokor berriak zehatz-mehatz antolatuta:
- AI-SUS-R09 Puntanoeta.
- AI-SUS-R10 Narrondo.
- Sektorizatze-planera igorritako lurzoru urbanizagarri sektorizatugabeko eremuak:
- PS-MO1 Txikierdi
- PS-AE01 Bialea I
- PS-AE02 Bialea II



- Eteteak ez du eraginik izango Plan Orokor berrian hala jasota dauden eta garatzen ari diren plangintza-eremuetan, ez hiri-lurzoruan, ez lurzoru urbanizagarrian.

Antolamendu xehatu berriaren ondoriozko eraginak:

Honako hauek hartuko dira kontuan:

- Hiri-lurzoru finkatuan, etendurak Plan Orokor berriak proposatutako eraikuntza- eta erabilera-erregimena eta Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen dokumentuak ezarritako indarreko araubidea bat ez datozenean bakarrik izango du eragina. Nolanahi ere, etendurak ez du eraginik izango proiektuak bi araubideak betetzen dituenean.

- Hiri-lurzoru finkatugabeen:

- Etendurak zuzkidura-jarduketa gisa mugatutako lurzatiei eragiten die, salbu eta proiektuak bi araubideak betetzen baditu (Zumaiako Plan Orokor berria eta indarrean dauden Plangintzako Arau Subsidiarioak). Honako hauek dira:

- AD-R01. Arritokieta kalea 014.
- AD-R02. Eusebio Gurritxaga, 10.
- AD-R03. Olazabal Idazkariaren kalea, 9.
- AD-R04. Harategi kalea 15.
- AD-R05. Harategi kalea 19.
- AD-R06. San Telmo kalea 905.
- AD-R07. San Telmo kalea 14.
- AD-R08. San Telmo kalea 21.
- AD-R09. San Telmo kalea 25.
- AD-R10. Jadarre auzunea 03.
- AD-R11. Oikia auzoa 36.
- AD-R12. Oikia auzoa 34 BIS.
- AD-R13 Oikia auzoa 34.
- AD-R14 Oikia auzoa 917.

Etendurak hasierako onarpenaren izapidean dagoen Plan Orokor berrian mugatutako jarduketa integratuetan sartutako lurzoruei eragiten die.

- AI-SUNC-R01 San Jose.
- AI-SUNC-R02 Arritokieta.
- AI-SUNC-R03 Erribera.
- AI-SUNC-R04 Estazioa A.
- AI-SUNC-R05 Estazioa B.
- AI-SUNC-R06 Urola Enparantza-Guascor.
- AI-SUNC-R07 Aita Mari.
- AI-SUNC-R08 Oikia.



1.3.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZUMAIAKO UDALAREN ARTEKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO HITZARMENAREN LUZAPENA ONARTzea, BIDEZKO BADA.

2022KO APirilAREN 16KO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN IRIZPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZUMAIAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.

DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE SERVICIOS SOCIALES DE 16 DE ABRIL DE 2022 SOBRE LA APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA PARA LA FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO.

AURREKARIAK

Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

Nahiz eta, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera, zerbitzu hori eskaintzea udalen eskumenekoa izan, Gipuzkoako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adostu dute, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzea 2017-2019 aldian.

Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuen erabiltzaileentzako arreta hobetzeko asmoz, 2018an lankidetzaren hitzarmen bat formalizatu zuten. 2021eko irailaren 30ean amaitu zen haren indarraldia, eta, bertan, zerbitzua finantzatzeko sistema arautzen zen.

ANTECEDENTES

La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de servicios sociales, ordena y estructura un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía a dichos servicios.

El artículo 22.1 de la referida Ley incluye el Servicio de Ayuda a Domicilio (SAD) dentro de los servicios sociales de atención primaria cuya provisión según lo dispuesto en el artículo 42.4 es competencia de los ayuntamientos.

En virtud de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales, la prestación de éste servicio recae en el ámbito competencial municipal, los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa y la Diputación Foral de Gipuzkoa han acordado en el seno de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales la cofinanciación del SAD durante el período 2017-2019.

Ambas administraciones, con la finalidad de mejorar la eficacia de la gestión pública y la atención a las personas usuarias del Servicio de Ayuda a Domicilio, así como avanzar en la reordenación competencial se formalizó en el año 2018, un convenio de colaboración, cuya vigencia finalizó el 30 de septiembre de 2021, en el que se regulaba el sistema de financiación del



Bi administrazioen helburua da eskumenak berrantolatzen jarraitzea. Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan erabaki dute 2021-2023 aldian zehar ELZren baterako finantzaketari eustea. Horretarako, lankidetzaren hitzarmen berri bat formalizatuko da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2022ko otsailaren 16an Gizarte Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 4 (1 EAJ; 3 Eh Bildu)
Aurka: 0
Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo osoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.2.h) artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Indarrik gabe uztea 2018ko maiatzaren 17an Udalbatzak onartutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zumaia Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, etxez etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzekoa,

2.- Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zumaia Udalaren arteko Lankidetzaren Hitzarmena, Etxeko Laguntza zerbitzua finantzatzekoa. Hitzarmena eranskin gisa erantsi da.

3.- Alkateari beharrezkoak diren agiriak sinatzeko ahalmena ematea.

servicio.

Es objetivo de ambas administraciones seguir avanzando en la reordenación competencial, por lo que, en el seno de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales, han acordado mantener la cofinanciación del SAD durante el periodo 2021-2023 se plantea formalizar un nuevo convenio de colaboración.

DICTAMEN

En consecuencia la Comisión Informativa de Servicios Sociales de fecha de 16 de febrero de 2022, tras la siguiente votación:

A favor: 4 (1 PNV; 3 Eh Bildu)
En contra: 0
Abstención: 0

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 135,3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría absoluta de sus miembros presentes establecido en el art. 47.2.h) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

1.- Dejar sin efecto el Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zumaia para la financiación del servicio de ayuda a domicilio aprobado por acuerdo del Pleno de la Corporación de 17 de mayo de 2018

2.- Aprobar el Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zumaia para la financiación del servicio de ayuda a domicilio que se acompaña como Anexo.

3.- Autorizar al Alcalde del Ayuntamiento para la firma de cuantos documentos sean necesarios.



4.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Zumaian, 2022ko otsailaren 16an

GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEBURUA

ERANSKINA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA XXXXKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONDORIO EKONOMIKOAK ZABALTZEKO ETA HASIERAKO INDARRALDIARI AMAIERA EMATEKOA.

ADENDA DE EXTENSIÓN DE EFECTOS ECONÓMICOS Y FINALIZACIÓN DE LA VIGENCIA INICIAL DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE XXXX PARA LA FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO.

Sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.
En el lugar de la firma electrónica.

ELKARTU DIRA

Alde batetik, **MAITE PEÑA LÓPEZ** Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluak 2024ko abenduaren 10ean egindako bileran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.

Eta bestetik,**NORK**....., Udaleko ...**KARGUA**..... eta ordezkaria, 2024ko ...**DATA**...renko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.

AZALTZEN DUTE

I.- Aldeek..... (e) ko..... aren.... (e) (a) n sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta xxxx (e) ko Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, etxez etxe laguntza-zerbitzua finantzatzeko.

II.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulak hitzarmenaren indarraldia ezartzen du, eta adierazten du gehienez lau urtekoa izango dela. Nolanahi ere, hitzarmena sinatu duten alderdiek aho batez eta hura amaitu baino lehen adostu ahal izango dute lau urte gehiagoz luzatzea edo azkentzea.

III.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulan xedatutakoaren arabera aldeek hitzarmenaren ondorio ekonomikoak urte natural batez zabaltzea adostu zuten, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Kontuan izanda hitzarmenaren hasierako gehieneko iraupena lau urtekoa izango dela,

REUNIDOS

De una parte, Doña **MAITE PEÑA LÓPEZ** en calidad de Diputada Foral del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en su representación, expresamente autorizada para este acto por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10 de diciembre de 2024.

Y de otra parte, ...**QUIÉN**....., en calidad de ...**CARGO**.... del Ayuntamiento de y en su representación, expresamente autorizado/a para este acto por acuerdo Plenario Municipal de ...**FECHA**..... de de 2024.

EXPONEN

I.- Que las partes firmaron el de de el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de xxxx para la financiación del servicio de ayuda a domicilio.

II.- Que la cláusula decimocuarta del convenio establece la vigencia del mismo, señalando que no podrá ser superior a cuatro años, sin perjuicio de que las partes firmantes del convenio podrán acordar unánimemente y antes de la finalización de dicho plazo, su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

III.- Que en base a lo dispuesto en la cláusula decimocuarta del convenio las partes acordaron extender los efectos económicos del convenio por un año natural desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2024.

Habida cuenta de que la duración inicial del



Zumaiako Udala

2025eko irailaren 30ean amaituko da hasierako indarraldia.

Aurrekoa oinarri hartuta, bi alderdiek adostu dute eranskin hau formalizatzea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Helburua.

Hitzarmenaren ondorio ekonomikoak bederatzi hilabetez zabaltzea erabaki da, 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era. Horrela, aurreikusitako lau urteko gehieneko hasierako indarraldia beteko da.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren gainerako zatiek irautea.

Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztian, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraituko dute, eta horiek ere aplikatuko dira dokumentu honi beharrezkoa zaion guztian.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, dokumentu hau elektronikoki sinatzen dute, sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

XXXXXXKO UDALA / MANKOMUNITATEA

XXXXXX XXXXXXXX XXXXXXXXX

2024IAKU0015

convenio no podrá ser superior a cuatro años, el plazo de vigencia inicial vence el 30 de septiembre de 2025.

Con base a lo anterior, ambas partes han convenido la formalización de la presente adenda de acuerdo con las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto.

Se acuerda extender por nueve meses los efectos económicos del convenio, desde el 1 de enero hasta el 30 de septiembre de 2025. Así, se cumplen los cuatro años de vigencia máxima inicial prevista.

SEGUNDA.- Subsistencia del resto del convenio.

En todo lo no previsto en el presente documento seguirán plenamente vigentes y aplicables todas las demás cláusulas y disposiciones del convenio, siendo las mismas igualmente de aplicación en cuanto fuere necesario al presente documento.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, se firma electrónicamente el presente documento, en el lugar y fecha de la firma electrónica.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

MAITE PEÑA LÓPEZ



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Hemen bozkatuko duguna da, lehendabiziko puntua da Hitzarmenaren ondorio ekonomikoak bederatzí hilabetez zabaltea erabaki da, erabakiko litzateke, 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era. Horrela, aurreikusitako lau urteko gehieneko hasierako indarraldia beteko litzateke. Eta bigarrenez, dokumentu honetan aurreikusi ez den guztian, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraituko dute. Eta horiek ere aplikatuko dira dokumento honi beharrezkoa zaion guztietan. Beraz, azken finean da lau urteko epea bukatzen dala irailan eta urtero berritzen dela Aldundiakin dagoen hitzarmena. Galderarik ez baldin badago bozkatu eingo degu. Hitzarmenaren aldeko bozkek?

Alkateak gaia aurkeztu ondoren bozka eskatu du,

Aldeko botoak: 16 boto (10 EH BILDU; 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

LEHENA.- Indarrik gabe uztea 2018ko maiatzaren 17an Udalbatzak onartutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zumaiako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, etxeko laguntza-zerbitzua finantzatzekoa,

